

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

51. zenbakia

Data 2007-03-13

6529 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA - DIPUTATU NAGUSIA

Martxoaren 6ko 2/2007 FORU DEKRETU ARAUA, ibilgailu automobilen parkea modernizatzeko PREVER programarekin zerikusia duen zerga alorreko zenbait neurri onartzeari buruzkoa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Martxoaren 6ko 2/2007 FORU DEKRETU ARAUA, zerga alorreko zenbait neurri ezartzen dituen ibilgailu automobilen parkea modernizatu, bide segurtasuna hobetu eta ingurumena babesteko PREVER programaren inguruan eta abenduaren 29ko 44/2006 Legeak nekazari eta abeltzaintzat Hidrokarburoen gaineko Zerga dela-eta lurralde erkidean onartutako itzulketa bereziaren inguruan.

Duela gutxi bi xedapen berri onartu eta argitaratu dira lurralde erkidean: Batetik, abenduaren 29ko 13/2005 Errege Lege-Dekretua, ibilgailu automobilen parkea modernizatu, bide segurtasuna hobetu eta ingurumena babesteko PREVER programari dagokionez presazko neurriak ezartzen dituen eta, bestetik, abenduaren 29ko 44/2006 Legea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa hobetzeko -Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa berezia aurreikusten du nekazari eta abeltzaintzat-. Bada, bi xedapen horiek zenbait aldaketa sartu dituzte zerga berezien erregulazioan, eta Gipuzkoako araudia haietara egokitu beharra dago.

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 33. artikuluan bat apartatua ezartzen duenez, zerga bereziak itundutako tributuak dira, estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberei jarraituta erregulatuko direnak.

Horrek guztiak beharrezko egiten du arau horiek zerga berezien inguruan sartutako aldaketak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudira ekartzea.

Bestalde, eta PREVER programan jasotako neurriekin bat etorritik, 2007. urterako luzatu egiten da sei tonatik beherako ibilgailu industrial berrien saltzaileentzat Sozietateen gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan lehendik aplikagarri den kenkaria, hain zuzen ere, azaroaren 25eko 81/1997 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia ibilgailu automobilen parkea modernizatu, bide segurtasuna hobetu eta ingurumena defendatu eta babesteko PREVER programari buruzko urriaren 8ko 39/1997 Legea egokitzen duenak, 2. artikuluan jasotakoa, betiere otsailaren 24ko 10/2004 Foru Dekretuak, hainbat zerga xedapen lurralde erkidean egindako lege aldaketetara egokitzen duenak, bosgarren xedapen gehigarrian eman dion idazkerari jarraikiz.

Alde horretatik, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan jasotzen du Diputatuen Kontseiluak, presazko arrazoiak daudenean, behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela Foru Dekretu Arau baten bitartez, eta xedapen horiek berehala eztabaidatu eta osorik bozkatu beharko direla Batzar Nagusietan.

Horiek horrela, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak aipatutako egunean egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATU DUT

1. artikulua. Presazko neurriak onartzea ibilgailu automobilen parkea modernizatu, bide segurtasuna hobetu eta ingurumena babesteko PREVER programari dagokionez, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziarekin lotuta.

Bat. 2007. urterako soil-soilik, ondorengo 2. apartatuko baldintzak betetzen dituzten turismo ibilgailu erabilien subjektu pasibo titularrek kenkaria egiteko eskubidea izango dute Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren kuotan, baldin eta ondorengo 3. apartatuko baldintzak betetzen dituen turismo ibilgailu berri bat haien izenean lehen aldiz behin betiko matrikulatzen badute. Kenkaria 480,81 eurokoa izango da, eta inoiz ere ez da kuota baino handiagoa izango.

Bi. Aurreko apartatuan aipatutako turismo ibilgailu erabiliak baldintza hauek bete behar ditu:

a) Artikulu honetan aipatzen den kenkaria aplikagarria den momentuan, gutxienez hamar urteko antzinatasuna izatea, behin betiko lehen matrikulazioa egin den egunetik kontatzen hasita.

Behin betiko lehen matrikulazioa Espainian egin ez bada, aurreko paragrafoan aipatzen den antzinatasuna edukitzeaz gainera, ezinbestekoa izango da turismo ibilgailu erabiliaren behin betiko matrikulazioa Espainian egin egotea hurrengo b) letran txatarrerara eramateagatik aipatzen den behin betiko baja eman baino gutxienez sei hilabete lehenago.

b) Txatarrerako behin betiko baja emanda egotea eta baja eman zaionetik turismo ibilgailu berria matrikulatu arte sei hilabete baino gehiago ez igarotzea.

Hiru. Bat apartatuan aipatu den turismo ibilgailu berriak 2.500 zentimetro kubikotik beherako zilindrada eduki beharko du.

Lau. Betekizun horiek frogatuko dira turismo ibilgailu berriaren behin betiko lehen matrikulazioa egiten den momentuan. Horretarako, zergaren ordainagiriarekin batera, turismo ibilgailu erabiliaren behin betiko bajaren frogagiria aurkeztuko da, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak edo horren menpe dauden organoek emana.

2. artikulua. Ibilgailu industrial berrien saltzaileei kenkaria aplikatzea Sozietateen gaineko Zergan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

Bat. 2007. urterako soil-soilik, artikuluko Lau apartatuan adierazi diren pertsonen ahalmena izango dute gehienezko pisu baimendua 6 tonatik beheragokoa duten ibilgailu industrial berrien erosleei eta, hala badagokio, errentari finantzarioei emandako hobarien zenbatekoa Sozietateen gaineko Zergaren edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osotik kentzeko, betiere erosle edo errentari finantzario horiek frogatzen badute 6 tonatik beherako gehienezko pisu baimendua duen beste ibilgailu industrial bati txatarrerako baja eman diotela eta haren titular izan direla. Gainera, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Txatarrerako ibilgailuak zazpi urtetik gorako antzinatasuna izatea behin betiko lehen matrikulazioa egin zenetik. Behin betiko lehen matrikulazioa Espainian egin ez bada, aurreko paragrafoan aipatu den antzinatasuna edukitzeaz gainera, ezinbestekoa izango da txatarrerako ibilgailua Espainian behin betiko matrikulatuta egotea txatarrerako behin betiko baja eman baino gutxienez urtebete lehenago.

b) Bai ibilgailu berria eta bai txatarrerara eramatekoa jasota egotea Trafikoari, Motorezko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen eranskineko 22. edo 26. apartatueta, eta jasota agertzea, baita ere, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duenak, 70.1 artikulua a) letran Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari lotuta ez egoteari buruz dakartzan kasuetan.

Bi. Aurreko apartatuan aipatutako kuota osoaren kenkaria ez da 480,81 eurotik gorakoa izango ibilgailu bakoitzeko.

Hiru. Hobaria ez da kengarria izango ibilgailu zaharrari baja eman zaionetik ibilgailu berria matrikulatu arte sei hilabete baino gehiago igaro badira.

Lau. Fabrikatzaileak, Espainiako lehendabiziko jasotzaileak edo, halakorik bada eta haien orde, kontzesionarioarekin edo amaierako saltzailearekin banaketa kontratua sinatua duenak aplikatuko du artikuluko honetako Bat apartatua araututako kenkaria.

Kasu horretan, ibilgailuaren kontzesionarioak edo amaierako saltzaileak haren prezioan aplikatuko du hobaria, baina hobariak ez dio eragingo ez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren oinarriari eta ez kuotari.

Errentamendu finantzarioa dagoenean, hobariaren zenbatekoa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren oinarri ezargarrian sartuko da.

Artikulu honetan aipatutako hobaria jasotzen duen subjektu pasiboak kontzesionarioari edo amaierako saltzaileari itzuliko dio hobariaren zenbatekoa, Bi apartatua ezarritako kenkariaren mugarekin. Kontzesionarioak edo amaierako saltzaileak, bere aldetik, hobaria aplikatu izanaren faktura frogagarriak eta ibilgailuen baja ziurtagiriak emango dizkio subjektu pasiboari, ibilgailu horiek direla-eta Sozietateen gaineko Zergan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egiten diren kenkarien ondorioetarako.

Bost. Trafiko Zuzendaritza Nagusiak edo honen menpeko organo eskudunek ibilgailuen bajagatik luzatzen dituzten ziurtagirietan jasota utzi beharko da aurreko apartatuetan exijitzen diren beharkizunak bete egiten direla.

Sei. Artikulu honetako Bat apartatua aipatzen den kenkariaren zenbatekoak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 47. artikuluan eta Errenta Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 97. eta 113. artikuluetan arautzen diren atxikipenen eta konturako sarreraren pareko izaera hartuko du kenkariaren eta, hala badagokio, ofiziozko itzulketen ondorioetarako, bai eta subjektu pasiboak derrigorrez egin beharko lituzkeen ordainketa zatikatuen ondorioetarako ere.

3. artikulua. Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa berezia nekazari eta abeltzaintzat.

Bat. 2005eko urriaren 1etik 2006ko irailaren 30era bitartean nekazari edo abeltzainek eskuratutako gasolioa zergapetua izan bada martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duenak, 50.1 artikuluko 1.4 epigrafean ezarritako tasaren arabera, eskubidea izango dute Hidrokarburoen gaineko Zergarengatik ordaindu edo jasandako kuotak haiei itzultzeko. Itzuli beharreko kuoten zenbatekoa honela kalkulatu da: Nekazaritzan - barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne- benetan erabilitako gasolio bolumena, mila litrokotan adierazia, 0,998 koefizientearekin biderkatuko da, eta ateratzen den emaitzari 78,71 euroko tasa aplikatuko zaio 1000 litro bakoitzeko.

Bi. Itzulketa honen ondorioetarako, pertsonak edo entitateak nekazaritzat hartuko dira baldin eta, 20/1998 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluko 1.4 epigrafearen arabera zergapetutako gasolioa adierazitako epean erabiltzeko eskubidea izanik, hura nekazaritzan karburante gisa benetan erabili badute -barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne-, eta gainera, jarduera horietan aritzeari begira, Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen duen Zergapekoen Zentsuan inskribatuak egon badira.

Hiru. Fiskalitaterako eta Finantzatarako foru diputatuak ezarriko du itzulketa egiteko prozedura, eta prozedura horretan posible izango da interesatuak zerga aitortpenak aurkeztera behartzea, baita zentsu aitortpenak aurkeztera ere.

4. artikulua. Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzea, aldatzea.

20/1998 Foru Dekretuaren 77. eta 78. artikulua birzenbaitu egin dira, haien edukia ezertan ere ukitu gabe, eta aurrerantzean 76. eta 77. artikulua izango dira hurrenez hurren. Izan ere, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabeturik geratu da 20/1998 Foru Dekretuaren 76. artikulua, halaxe ezarri baitzuen otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duenak, hirugarren xedapen indargabetzailean, betiere otsailaren 24ko 10/2004 Foru Dekretuak emandako idazkerari jarraikiz.

Amaierako xedapena.

Foru dekretu arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia, 2007ko martxoaren 6a.

EL DIPUTADO GENERAL,
Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO PARA LA
FISCALIDAD Y LAS FINANZAS,
Juan Jose Mujika Aginagalde.

(2107) (2733)